



ESKOLA

Lurrun makinak zaharkituta utzi zuen energia muskularra. Lurrun makinak esklabotza deuseztatu zuen eta erroten ur jauzi xumeek sortzen zuten energia urria baztertu zuen. Esklaboarengandik, ekoizpenak indar muskularra baino ez zuen behar, kasurik onenean, animalien indar muskularra gidatzeko. Kulturak ez zuen esklaboaren gogoia hautematen. Aristotelesekin zalantzan jarri zuen esklaboek arimarik ote zuten ere. Esklaboari muskulua eta men egitea baino ez zitzaion eskatzen.

Lurrun makinaren energiaren batera, makina industrialak agertu zen. Baina ingeniariak asmatutako makinak erabilia izatea behar zuen. Eta gizakien burua baino ez da makina erabiltzeko gai. Gizakien burua trebatu egin behar zen makina erabiltzeko. Herri eskola sortzen da. Makinarekin, esklaboa langile bihurtzen da. Makina erabiltzeko oinarria erakutsi behar zaio, esklabotzaren garaitik zetorren obediencia eta diziplina sustatuz.

Egiazki, eskolako ikaskuntza behinolako garaietatik zetorren. Erdi Aroko Unibertsitatearekin jaio zen. Baina unibertsitate, Europa osoan, hori goi mailako klaseentzat eta elizgizonentzat zegoen erreserbatuta Gure Herrialdeko mugimendu ilustratuak arau unibertsal hura hautsi zuen. Izaera popularreko aristokrata haiek, XVIII. mendean, Bergarako Zientzien Seminarioa sortu zuten, eta horko laborategiari buruz zera esan zuen Thunborgek: "Stockholmekoa eta Upsalakoa halako lau da". Han, elhuyartarrek wolframioa aurkitu zuten. Han sortu zen Ingeniarien lehen eskola, eta nekazaritzaren, burdinolen eta arrantza tresnen eta gazitze tekniken eraldaketa proiektatu zen.

Euskal ilustratuen saga luzeak zientzietan eta letretan eman zuen hats berritzailea ez zen berez agertu. Foruak ahalbidetu zuen Munibe, Narrosko Markes, Ignacio M. Altuna eta haien Lagunek mugak gainditzea, pentsamenduaren Europarantz, eta Entziklopediaren Frantzian sartzea. Ezagutzaren eta ekintzaren aldeko grina euskal Ethosean eta Pathosean inprimatuta zeudelako. Foru Berriak dagoeneko, 1526. urtean, zera adierazten zuen: "hazteaz eta elikatzeaz gain, gurasoek edo zaintzaileek otoitz egiten eta irakurtzen erakusteko betebeharrak dute", eta agintzen zuen "Elizate guztietan eskolak sor daitezela bizilagunak alfabetatzeko".

Foruak euskaldunen berdintasuna ezartzen zuen goitik, gure biztanleen estatus juridikoa kapareen mailara igoz unibertsalki. Ezagutzeko eta egiteko grina, kapareen estatusa Espainiako Erresumen aurrean: euskal kooperatibismoaren sustraiak ezarrita zeuden.

Lurrun makinak esklaboa langile bihurtu zuen moduan, nahitaez oso jakituria urriko, oletako gizon-emakumeak eta letrak uztartuta berehala ernamuindu ziren apendiz eskolak, eta azkar itzarri ziren makinaren sortzaile berriak, ingeniariak. Arizmendiarrietak eta haren dizipuluek Eskola Profesionala sortu zuten. Herri substratuetatik agertu ziren makinaren sortzaileak eta makinaren jabe komunitarioak: kooperatibez ari gara.

Eskolak enpresak eskatzen dituen buruak eta nortasunak modelatzen ditu, eta enpresak eskolan hezteko moduei eragiten die. Iraganetik herediatutako euskal izpirituak, jakintza eta komunitateko lana balioesten duelarik, enpresa kooperatiboa sortu zuen, baina enpresak eta bere ingurune kooperatiboak gogo



eta arima kooperatiboa duten emakumeak eta gizonak behar ditu. Antzinako Erregimenaren eta Kristautasunaren zikloa amaituta, euren izerdiarekin enpresa kooperatiboa eta ingurunea elikatuko duten emakume-gizon horiek heziketa kooperatiboaren bitartez eratu behar dira, modu formalizatuan zein informalean.

Buruz urrituak diren langileak behar dituen industriaren aroa amaitu da. Laugarren industri iraultzan gaude, automateg ordeztu dituzte taylorizatutako langileak. Gizakiaren bitarteko gorenak behar dituen aroan gaude: adimena, irudimena, sormena eta elkertasuna, euskal Ethosaren eta Pathosaren taupada. Kooperatibagintzak laugarren iraultzaren espirituarekin bat egiten duen garaian gaude. Garatu dezagun eskola kooperatiboa, sormena, asmakuntza, alaitasuna eta elkertasuna hauspotzen dituen.

*Rafael Cristobal doktorea
Arrasate/Mondragon 20-07-24*